

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
		Azken data	Δ Urte artekoa (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
- Afiliatutako biztanleriak gora egin du; aurreko hilean baino % 1,2 gehiago da orain. Guztira 199.590 afiliatu daude. Bilboko enpresen kontratuak % 12,3 egin dute gora urtetik urtera, eta 13.856ra iritsi dira. - Urrian 21.142 langabe erregistratu dira, aurreko hilean baino % 1,0 gehiago. - Hirugarren hiru hilekoaren amaieran, txikizkako merkataritzak % 3,7ko igoera izan du. Azalera handietako eta elikagaien kateetako salmentek % 0,1eko igoera izan dute. - Bilboko turismo-jarduerak gora egiten jarraitzen du. Hotelek eta turismo-apartamentuek 131.720 sarrera eta 259.373 gaualdi erregistratu dituzte guztira, urte arteko % 18,5 eta % 13,7ko igoerekin, hurrenez hurren. - Zerbitzuen salmenta urte artean % 3,6ko igoera izan du. - Bilboko aireportuak 673.480 bidaiari jaso zituen urrian, hots, aurreko urteko hilabete berean baino % 7,9 gehiago. Portuko trafikoak ia 2,8 milioi tona kudeatu ditu.	Lan-merkatua			
	Afiliatutako biztanleak (kop.)	199.590	1,2*	Urr.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.142	1,0*	Urr.
	Erregistratutako kontratuak	13.856	-12.3	Urr.
	Merkataritza			
	Txikizkako merkataritza-salmentak (2021. urtea = 100eko oinarria)	113,5	3,7	2025eko 3. HH
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	103,4	0,1	Urr.
	Turismoa (hotelak eta apartamentuak)			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	131.720	18,5	Urr.
	Ostatu-gauak (kop.)	259.373	13,7	Urr.
	Batez besteko egonaldia (egunetan)	1,97	-3,9	Urr.
	Ekonomia eta enpresa			
	Zerbitzuak: salmenta-indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	122,3	3,6	2025eko 3. HH
	Garraioa			
	Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	673.480	7,9	Urr.
	Salgaien itsas-garraioa (milioi tona)	2,8	-1,9	Urr.

DATU BAT

% 3,7

Txikizkako merkataritza-salmentak

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Urrian 215 langabe gehiago erregistratu ziren, hau da, hiletik hilera % 1,0 gehiago, eta 21.142 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa igo egin da gizonen eta emakumeen artean, % 1,2 eta % 0,9, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 108 emakume eta 107 gizon zeuden langabe.

Adin tarte guztietan areagotu da. 16 eta 24 urte artekoen artean % 6,2 igo da kopurua eta 114 langabe gehiago daude. Langabeziak behera egin du 25-44 urteko tartean (0,4% eta +30 gehiago), eta 45 urte eta gehiagokoan artean ere bai (% 0,7 eta 71 langabe gehiago).

Sektoreka, Zerbitzuetan 52 langabe gehiago izan dira (% 0,4), Lehen Sektorean 38 (% 10,9), Industrian 21 (% 1,5) eta lehenengo lanaren bila ari direnen artean 109 (% 3,5). Eraikuntzan murriztu da erregistratutako langabezia (-% 0,4 eta 5 pertsona gutxiago).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasa % 0,8 handitu da aurreko hilaren aldean. Valentziak izan du taldeko beherakada bakarra, -% 0,1ekoa. Zaragozan erregistratu da gorakadarik handiena, % 1,3koa.

Euskal hiriburuen taldean (G-3) erregistratutako langabezia mantendu egin da (% 0,0) Behera egin du Donostian eta Gasteizen (-% 0,2 bi kasuetan) eta Iruñean igo egin da (% 0,5).

Langabeziak gora egin du EAEn (% 0,6): Gora egin du baita Bizkaian (% 1,0) eta Araban ere (% 0,1). Gipuzkoan bere horretan mantendu da (% 0,0).

Afiliatuak

Bilboko enpresetan 199.590 afiliatu zeuden urriaren amaieran, hau da % 1,2ko igoera izan zen eta 2.396 enplegu gehitu ziren irailarekin alderatuta.

Araubide Orokorrak 2.291 enplegu irabazi ditu aurreko hilaren aldean; Langile Autonomoen Erregimen Bereziak ere 117 afiliazio gehiago izan ditu eta Etxekoak 70. Araubide berezietan (nekazaritzakoa eta itsasokoa) 82 enplegu daude.

Urte artean enpleguak % 1,8ko hazkundera izan du, hau da, 3.593 afiliatu gehiago.

Erregistratutako langabeak

Hilabete artekoa Δ

Urria	21.142 pertsona
	% 1,0 ▲
Emakumeak	% 0,9 ▲
Gizonak	% 1,2 ▲

Benchmarkina

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 1,0 ▲
G-5	% 0,8 ▲
G-3	% 0,0 =

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete artekoa Δ

Urria	199.590 pertsona
	% 1,2 ▲
Araubide orokorra	% 1,4 ▲
Autonomoak	% 0,5 ▲
Etxeko Sistema Berezia	% 1,1 ▲
Beste batzuk	% 10,7 ▼

Araubide Orokorra % 2,2 hazi da, eta bereziak —Nekazaritza eta Itsasoa—, berriz, –% 0,4. Behera egin dute Etxekoak (–% 1,3) eta Autonomoenak (–% 0,3).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,8ko gorakada izan du aurreko hilaren aldean. Joera positiboa izan da taldeko hiriburu guztietan. Valentziak izan du hazkunderik nabarmenena (% 1,1) eta Zaragozak baxuena (% 0,2).

G-3ko hiriburuaren taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, % 0,7 igo da. Gasteizen % 1,0 hazi da, Donostian % 0,7 eta Iruñean % 0,4.

EAE osoan, afiliatuak % 0,8 igo dira hil artean. Araba bere horretan mantendu da (% 0,0), Bizkaiak % 1,0 irabazi du eta Gipuzkoak % 0,7.

Benchmarkina

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 1,2 ▲
G-5	% 0,8 ▲
G-3	% 0,7 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urrian 13.856 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino –% 12,3 eta 1.942 kontratu gutxiago. Urtetik urtera gutxiagotu egin dira gizonei eta emakumeei egindako kontratuak: 784 eta 2.726 gutxiago, hurrenez hurren.

Kontratuek behera egin dute hiru adin tarteetan. 25 eta 44 urte arteko tarteetan –% 11,2 murriztu dira, hau da, 836 kontratu gutxiago egon dira, 45 urte edo gehiago dituztenen artean –% 16,7 (730 gutxiago) eta gazteenen artean, –% 9,4 (376 gutxiago). Erregistratutako kontratuen % 47,6 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (6.597 kontratu), % 26,1, berriz, gazteenei (3.616) eta gainerako % 26,3a, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (3.643).

Sektoreka, kontratuak murriztu egin dira Zerbitzuetan (–% 13,4 eta 1.977 kontratu gutxiago) eta Lehen sektorean (–% 69,2 eta 18 gehiago). Eraikuntzan (% 8,9 eta 32 langabe) eta Industrian baino ez da areagotu (% 3,3 eta 21 langabe gehiago). Zerbitzuetan, igoera absolutu esanguratsuenak erregistratu dira Etxeko langileak enplegatzen dituzten etxebizitzetan (209 gehiago), Beste zerbitzuetan (85 gehiago) eta Merkataritzan (44 gehiago). Informazioa eta komunikazioak, Osasun- eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak eta Administrazio-jarduerak dira urte arteko galera handienak dituzten adarrak (–846, –776 eta –197, hurrenez hurren).

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 71,6 izan dira urrian. Mugagabeek 5,6% egin dute gora urtetik urtera. 10.333 pertsona kontratatu dira, –% 4,2 gehiago. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,34 kontratu.

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Urria	13.856 pertsona
	% 12,3 ▼
Emakumeak	% 30,9 ▼
Gizonak	% 11,2 ▲
Lehen sektorea	% 69,2 ▼
Industria	% 3,3 ▲
Eraikuntza	% 8,9 ▲
Zerbitzuak	% 13,4 ▼
Kontratututako pertsonak	% 4,2 ▼

MERKATARITZA

Txikizkako merkataritza

Bizkaiko txikizkako merkataritzaren sektoreak urte arteko % 3,7ko hazkundera izan du salmentetan hirugarren hiruhilekoan. Erregai-zerbitzuguneetan automobilgintzarako egindako erregaiaren salmenta kontuan izan gabe, salmentek % 3,4 egin dute gora.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 3,3 handitu dira salmentak.

Aztertutako sektore guztietan hazi dira urte arteko salmentak: automobilgintzarako erregaien salmentak izan dira igoera handiena izan dutenak (% 9,0); elikagaien salmentak eta gainerako produktuenak % 3,7 eta % 3,2 igo dira, hurrenez hurren.

Bizkaiko txikizkako merkataritzako sektoreko landunak % 2,3 areagotu dira iazko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

EAEn salmentek % 3,8 egin dute gora. Lurraldeetan ere gora egin dute, % 5,9 Araban eta % 3,0 Gipuzkoan.

Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek, urrian % 0,1 egin dute gora urte batetik bestera, egutegi-eragina duten datu zuzenduetan. Aurreko hilabetearekin alderatuta -% 1,3 murriztu dira salmentak.

Elikagaien salmentak bere horretan mantendu dira (% 0,0) 2024ko irailarekin alderatuta, eta gainerako produktuen % 0,1eko gorakada izan dute.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 0,9ko gorakada izan du.

Gainerako lurraldeetan, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak handitu egin dira Gipuzkoan (% 0,1); Araban, ordea, behera egin dute (-% 1,1). EAEn, orokorrean, -% 0,1 murriztu dira.

Txikizkako merkataritza Bizkaia

Urte artekoa Δ

III. hiruhilekoa	113,5 adierazle orokorra
	% 3,7 ▲
- Elikadura	% 3,7 ▲
- Gainerako produktuak	% 3,2 ▲
- Ibilgailuetarako erregaiak	% 9,0 ▲
Gasolina-zerbitzugunerik gabe	% 3,4 ▲
Landunak	% 2,3 ▲

Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Urria	103,4
Salmenta-indizea	% 0,1 ▲
- Elikadura	% 0,0 =
- Gainerako produktuak	% 0,1 ▲
Landunak	% 0,9 ▲

TURISMOA

Oro har, enpresa-establezimenduetan, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta, urrian 131.720 sarrera eta 259.373 gaualdi izan dira Bilbon (% 18,5 eta % 13,7 urte batetik bestera, kasu bakoitzean).

Aurten, urtariletik urrira, 2.345.612 gaualdi eta 1.202.109 sarrera erregistratu dira guztira, hau da, % 11,5eko igoera gaualdietan eta % 13,7ko igoera sarreretan, 2024ko aldi berarekin alderatuta.

Bilboko hotel-establezimenduetan 224.979 ostatu-gau erregistratu dira urrian, hau da, % 10,3ko hazkundera egon da urtetik urtera (21.008 ostatu-gau gehiago).

Bidaia-ien sarrerak ere gora egin du % 13,7. Estatuko bidaia-ien presentziak gora egin du urte artean (% 16,6), eta urrian hirira etorritako bisita-ien % 46,7 izan dira. Gainerako % 53,3 atzerritarrak dira, aurreko urteko hilabete berean Bilbon ostatu hartu zutenak baino % 11,2 gehiago.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako estatuko bidaia-iei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugari-ienak (% 27,3), gero Kataluniakoak (% 13,3), EAEkoak (% 11,0) eta Andaluziakoak (% 8,7). Atzerriko bidaia-iei dagokienez, jatorri haue-iatik datozenak izan dira ugari-ienak: AEBak (% 13,4), Alemania (% 9,8), Frantzia (% 9,6) eta Erresuma Batua (% 9,3).

Batez besteko egonaldia 1,96 egunekoa izan da, duela urtebete baino txikiagoa (2,02).

Hotel-establezimenduek emandako errentagarritasun-datuak kontuan hartuta, tarifak eta gela eskuragarriko batez besteko sarrerak gora egin dute, eta 137,7 eta 115,7 eurokoak dira, hurrenez hurren.

Apartamentu turistiko-ien establezimenduek 17.144 sarrera erregistratu dituzte guztira urrian, hau da, % 65,9 gehiago eta 34.394 gaualdi gehiago, eta 2024ko urrian baino % 43,0 gehiago.

Benchmarkina. Euskal hiriburuak aintzat hartuta (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, izan ere, % 3,9 hazi da urtetik urtera. Gora egin dute Donostia (% 0,2) Gasteizen (% 7,1) eta Iruñean (% 12,2). Urtetik urtera hobetu egin dira EAEn (% 4,8) eta hiru lurraldeetan: Araban (% 6,8), Bizkaian (% 8,6) eta Gipuzkoan (% 0,5).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gau-iek % 1,9ko gorakada izan dute. Zaragozan izan ezik (-% 5,9), ostatu-gau-iek gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Madrilen egon da gorakadarik handiena (% 3,0).

Establezimenduak (hotelak eta apartamentuak)

Urte artekoa Δ

Urria	
Ostatu-gauak, guztira	259.373 ostatu-gau % 13,7 ▲
Sarrerak, guztira	131.720 sarrera % 18,5 ▲
Batez besteko egonaldia	1,97 ostatu-gau/bidaia-ia

Hotel establezimenduak

Urte artekoa Δ

Urria	
Ostatu-gauak	224.979 ostatu-gau % 10,3 ▲
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	% 11,1 ▲
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 8,0 ▲
Bidaia-ien sarrera	
	114.576 sarrera % 13,7 ▲
Nazionalak	% 16,6 ▲
Atzerritarrak	% 11,2 ▲
Batez besteko egonaldia	1,96 ostatu-gau/bidaia-ia

Hotelen errentagarritasunaren adierazleak

Urte artekoa Δ

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 6,5 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 7,4 ▲

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

Urria	
Ostatu-gauak	34.394 ostatu-gau % 43,0 ▲
Bidaia-ien sarrerak	17.144 sarrera % 65,9 ▲
Batez besteko egonaldia	2,01 ostatu-gau/bidaia-ia

Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatua ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituenak. (Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 10,3 ▲
G-5	% 1,9 ▲
G-3	% 3,9 ▲
G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza	
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea	

EKONOMIA

Zerbitzuen salmentak

Merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko salmentak, urterik urte, % 3,6 igo dira hirugarren hiruhilekoan. Aurreko hilabetearekin alderatuta $-\% 3,1$ jaitsi da.

Jarduera-adarren arabera, hirugarren hiruhilekoan Informazioa eta komunikazioak adarrean bakarrik jaitsi dira, $-\% 2,1$. Garraio eta biltegiatzeen adarrak % 7,9 egin du gora, Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek % 4,8, Ostalaritzak % 2,5 eta Administrazio-jarduerak % 1,1.

Landunak % 0,5 ugaritu dira urtetik urtera.

Araban beste zerbitzuen salmenten indizeak % 5,3 egin du gora, Gipuzkoan % 0,9 eta EAEn % 2,9.

Merkatuko zerbitzuen salmentak. Bizkaia

Urte artekoa Δ

III. hiruhilekoa	122,3
Salmenta-indizea	% 3,6 ▲
Landunak	% 0,5 ▲

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 673.480 bidaiari izan ditu urrian (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 7,9 gehiago eta 49.218 bidaiari gehiago. Emaiz horiekin, gainera urriko daturik onena lortu du, funtzionatzen hasi zenetik.

Operazio komertzialei dagokienez, bidaiari nazionalen kopuruak gora egin du, izan ere, 24.487 bidaiari gehiago izan dira (% 7,1); bestalde, nazioarteko bidaiarien kopuruak gora egin du, 24.301 bidaiari gehiago izan baitira (% 8,8).

Hilean operatutako hegaldiak handitu egin dira, eta iritsieren eta irteeren artean 5.202 izan dira. Eta horietan garraiatutako salgaiak ere hazi egin dira (% 22,1).

Urtariletik urrira 6.015.667 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 3,7 gehiago, hau da, 213.321 bidaiari gehiago.

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 6,3ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Valentziakoak izan du hazkunderik nabarmenena (% 8,1), eta Bartzelonakoak txikiena (% 5,6).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 10,5 handitu da, urtetik urtera. Gasteizen % 21,8 igo da, Iruñean % 14,9 eta Donostian % 1,8.

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Urria	673.480 bidaiari
	% 7,9 ▲
Nazionalak	% 7,1 ▲
Nazioartekoak	% 8,8 ▲
Salgaiak (kg)	% 22,1 ▲
Hegaldiak	% 9,4 ▲

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 7,9 ▲
G-5	% 6,3 ▲
G-3	% 10,5 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Itsas garraioa

Bilboko Portuak 2,8 milioi tonako trafikoa izan zuen urrian, hau da, -% 1,9 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan urrian kudeatutako salgaien % 67,1 izan da, eta urte arteko % 9,3ko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa -% 30,0 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrena -% 11,5.

Urrian 13 itsas bidaia erregistratu dira.

Metatutako datuari **dagokionez, urtariletik urrira** 26,6 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean baino -% 9,3 gutxiago.

Itsas garraioa Urria

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	2,8 milioi tona
	% 1,9 ▼
Bidaariak garraiatzea	38.778 bidaia
	% 38,4 ▲
Itsas bidaariak (kop.)	25.135 itsas bidaia
	% 103,1 ▲

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken datua	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.142	1,0*	2025eko urria
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	199.590	1,2*	2025eko urria
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	13.856	-12,3	2025eko urria
Biztanleria aktiboa (milakotan)	175,8	-7,9*	2025eko III. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	164,6	-7,5*	2025eko III. HH
Langabeak (milakotan)	11,2	-13,2*	2025eko III. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	6,36	-0,39 p.p.*	2025eko III. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	120,0	0,5*	2025eko urria
Afiliatuak**	20.097	-0,1*	2025eko urria
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	113,5	3,7	2025eko III. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	103,4	0,1	2025eko urria
Turismoa			
Hotel establezimenduak			
Bidaia-erien sarrera	114.576	13,7	2025eko urria
Ostatu-gauak	224.979	10,3	2025eko urria
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia-aria)	1,96	-2,97	2025eko urria
Okupazio gradua (%)	68,5	4 p.p.	2025eko urria
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	115,7	7,4	2025eko urria
Apartamentu turistikoak			
Bidaia-erien sarrera	17.144	65,9	2025eko urria
Ostatu-gauak	34.394	43,0	2025eko urria
Batez besteko egonaldia apartamentuetan (ostatu-gauak/bidaia-ariak)	2,01	-13,73	
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BPGd	107,3	0,5*	2025eko II. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	107,3	0,8*	2025eko iraila
Merkataritza-sozietate berriak	692	6,1	2025eko urtarriletik irailera arte
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	122,3	3,6	2025eko III. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	4.753,5	9,6*	2025eko II. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²)	3.439,0	-1,2*	2025eko II. HH
Etxebizitzaren alokairuaren prezioa (€/hilabete)	934,7	0,1*	2025eko I. HH
Garraioa			
Bidaia-erien aire bidezko garraioa	673.480	7,9	2025eko urria
Hegaldiak	5.202	9,4	2025eko urria
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,8	-1,9	2025eko urria

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, Elnren, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, Axesorren, AENaren, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Afiliatuak




Txikizkako merkataritza



Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan



Aireportuko bidaiariak



Portuko garraioa

